

I. ERANSKINA: Lanpara motak eta horien ezaugarriak

LANPARA MOTAK	
Goritasun-lanparak	<ul style="list-style-type: none"> Metalezko harizpi batetik korrante elektrikoa igarotzen denean sortzen da argia. Elektrizitate gehien kontsumitzen dutenak dira, merkeenak eta gutxien irauten dutenak (1.000 ordu). Goritasun-bonbillek kontsumitzen duten elektrikitate energiaren %5 bakarrik aprobetxatzen dute argia emateko; gainerako %95a bero bihurtzen da, eta ez da baliatzen argiztatzeko.
Halogeno-lanparak	<ul style="list-style-type: none"> Halogenoak dituen gas konposatu bat gehitzen zaio goritasunezkoen sistemari; eta, hartara, erregenerazio ziklo bat ezartzen da harizpiaren partikulak gasera igarota eta berriro harizpian jarrita. Goritasun-lanparek baino gehiago irauten dute hauek (1.500 ordu) eta beren eraginkortasunari eusten diote. Ematen duten argiaren kalitateak ere ezaugarritzen ditu; izan ere, argiztatze bizia behar den tokietarako egokiak izaten baitira.
Lanpara fluoreszenteak	<ul style="list-style-type: none"> Beirazko hodi batean merkurio eta argoi gas kopuru txiki bat dago. Hodiaren bi aldeetan dauden bi elektrodoetan korrante elektrikoa igarotzen denean, horien artean deskarga elektrikoa gertatzen da, eta merkurioaren urrintetik igarotzen denean irrada ultramorea sortzen du. Irrada horrek hodiaren barnealdea gaineztatzen duen gai fluoreszente bat kitzikatzen du eta ikus daitekeen irrada bihurtzen da. Goritasun-lanparak baino argiztatze eraginkortasun handiagoa du. Prozesuan gutxiago berotzen da eta elektrikitate argia sortzeko baliatzen da neurri handiagoan. Ohiko bonbillak baino garestiagoak dira, baina %80 elektrikitate gutxiago ere kontsumitzen dute argitasun berbera emateko eta 8-10 aldiz gehiago irauten dute (6.000-9.000 ordu baliagarri).
Kontsumo apaleko lanparak	<ul style="list-style-type: none"> Lanpara fluoreszente trinkoak dira, ohiko bonbillen tamainara, formetara eta euskarrietara egokitu direnak. Ohikoak baino garestiagoak dira, baina ordaindutakoa berreskuratzen da, bizitza baliagarria luzea baitute (6.000-9.000 ordu).
LED lanparak	<ul style="list-style-type: none"> LEDa (Ligth-Emitting Diode) gailu erdieroalea da (diodoa), zuzenean polarizatzen denean eta korrante elektrikoa zeharkatzen duenean argia ematen duena. Energiari dagokionez, goritasun-lanparak baino eraginkorragoa da; izan ere, errendimendua %90 arterainokoa izaten ahal da. Bonbilla baten baliokidea, gutxi gorabehera, 10 LEDekin egin daiteke, eta egun oso erabiliak dira zirkulazio argietan.

Iturria: Hainbat iturritan begiratuta, guk geuk egina.

I. ERANSKINA: Lanpara motak eta horien ezaugarriak

Lanparei jarri ahal zaizkien gailuak energia kontsumoa aldatzeko

Balastoa	Lanpara baten korronea balio jakin batera mugatzen du gailu honek.
Pitzarazgailua/Abiagailua	Lanpara fluoreszenteetan erabiltzen da gailu hau, elektrodoak aurretik berotzeko eta, balastoarekin konbinatuta, une bateko tentsioa sortzen du lanparan.

Iturria: *Guía Técnica de Eficiencia Energética en Iluminación.*

(*) Informazioa VII. eranskinean zabaldu ahal da.

Lanparen argi eraginkortasuna	
Lanpara motak	Argüi eraginkortasuna (lm/W)
Goritasun-lanparak	10-15
Halogeno-lanparak	25
Fluoreszenteak	60
Fluoreszente trinkoak	86
Gaineztatze trifosforoa duten fluoreszenteak	66-95
Balasto elektronikoa duten fluoreszenteak	71-107

Iturria: http://www2.csostenible.net/es_es/tclave/energia/eficiencia/Pages/instalacionselectricitatiluminacio.aspx

Argi eraginkortasuna: argi iturri batek elektrizitate energia argi energia bihurtzeko duen errendimendua adierazten du. Lanpara jakin batek sortutako argi fluxuaren eta horren potentziaren arteko erlazioa da.